


# Memoria 2017



## Garapen

etorkizuna lantzen  
por y para el desarrollo

GARAPEN AGENTZIEN  
EUSKAL ELKARTEA  
ASOCIACION VASCA  
DE AGENCIAS DE DESARROLLO




Tel.: 94 424 32 23 · Fax: 94 424 80 02 · email: [garapen@garapen.net](mailto:garapen@garapen.net)  
Boroa Elkartegia · Boroa Enpresa Parkea, 19 - 2. solairua, 16 Bulegoa  
48340 Amorebieta-Etxano · Bizkaia




[www.garapen.net](http://www.garapen.net)



Tokiko eta eskualdeko garapen agentziak erakunde publikoak dira. Udalek sortutako tresnak dira enplegua sortzeko, enpresen lehiakortasuna hobetzeko eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz lurraldean esku-hartzen duten eragileekin lankidetzan.




# Estalitako biztanleria



## Garapen:


33 garapen agentzia, Euskal Autonomia Erkidegoko 3 lurralde historikoetan zehar banatuta.

**Garapen** osatzen duten agentziek 1.897.008 biztanle biltzen dituzten 187 udalerriri eskaintzen dizkiete euren zerbitzuak. Hau da, Euskadiko biztanleriaren %87ri



# Aurrekontua eta finantzaketa

## Enplegua



## Ekonomia Sustapena


Sektore emergente edo estrategikoen sustapena **72%**

Ekintzaitza sustapena **12%**

Enpresei zerbitzuak **12%**

Azpiegiturak **4%**

**2017ko** aurrekontu orokorra: **85.008.196 €**



■ Eusko Jaurlaritza  
■ Programa Europarrak  
■ Bestelako diru-sarrerak

■ Aldundia  
■ Udalak  
■ Diru-sarrerak arloka

# Giza- taldea

33 garapen  
agentzia

+

548  
profesional



Giza-taldea  
tokiko  
garapenaren  
zerbitzura



# Baliabideak bideratzea



# Lurralde-garapen eredua

---

- Helize boskoitzaren eredua.
- Ikuspuntu holistikoa.

Garapen ekonomikoa, ingurumenekoa eta soziala, ekonomia eta komunitate erresilienteak eraikitzeko.

Paradigma berria, eredu ekonomiko berrietan oinarrituta: ekonomia berdea, urdina, zilarreztatua, zirkularra, kolaboratiboa, onura komunaren ekonomia...

- Esku-hartze ereduaren funtsezko elementuak.

Lurraldea eta lurraldeko eragileak ezagutzen ditugu.


Maila anitzeko gobernantza.

Hurbiltasuna eta konfiantzazko harremana enpresarekiko, langabearekiko, ekintzailearekiko.

Administrazio publiko, ezagutza-gune, enpresa eta komunitateen arteko harremana.

Eskualde-mailako estrategia eta planekin lerratzea, eragina maximizatzeko.

# RIS3 estrategia eta planekin lerratzea



Iturria: RIS3 Euskadi zabalpena

# Lurraldea eraldatzea gizarte-garapenari eta garapen solidarioari esker

---

- Landuko diren **lankidetz**a proiektuen definizioa.
- **Gizarte berrikuntza**: lan-proiektuen definizioa, ekintzailetza edota enpresa sustapena (erronka hauei erantzuna eman nahian).
- **Berdintasun planen** definizioa eta martxan jartzea.
- **Pertsona helduei** arreta zerbitzua, **babesik gabeko adingabekoei** zerbitzua, **inmigranteak**...
- Herritarren parte hartzea.
- Eskualdeko garraio publikoa sustatzea.
- Talentua sustatzea.

# Gure udalerrri eta eskualdeetan kalitateko enplegua sustatzen dugu



## Arlo estrategikoak

- Enplegu-eskatzaillei laguntza ematen diegu eta, bereziki, lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsoneri:
  - ✓ Tokiko enplegu planak eta proiektuak garatzen ditugu lurraldeko enplegu aukera zehatzak oinarri hartuta.
  - ✓ Enpresekin lankidetzan aritzen gara enplegu-aukerak edo proiektuak antzemateko, langabeei lan-esperientzia emateko xedearekin.
- Eskualdeko pertsonen **talentua erakarri eta mantentzeko** ahalegintzen gara.
- Hezkuntza-zentroekin lankidetzan aritzen gara ikasleak enpresen aukera eta beharretara hurbiltzeko helburuarekin.

# Enpresa berriak sortzen ditugu enplegua eta aberastasuna sortzeko lurraldean



## Arlo estrategikoak

- **Kultura ekintzailea** bultzatzen dugu ikastetxe eta unibertsitateetatik.
- Ekintzaileei laguntza ematen diegu prozesu osoan zehar, negozio-ideiaren garapenetik hasita, negozioaren abiatze eta ezarpenera arte.
- **Laguntza-azpiegiturak** eskaintzen ditugu: coworking espazioak eta zehazte-prozesuan dauden edo eratu berri diren enpresa-proiektuetarako inkubagailuak.
- Enpresaren sorrera- eta ezarpen-prozesuan parte hartzen duten **eragileen arteko lankidetzak** sustatzen dugu.
- **Eremuak**: enpresa-zentroak, haztegiak, coworking-espazioak.

# Enpresen lehiakortasunaren hobekuntza oinarri hartuta, garapen ekonomikoa bultzatzen dugu



## Arlo estrategikoak

- Lehiakortasunarekin lotutako beharrak eta hobekuntza-aukerak antzematen ditugu eta horiei erantzuna ematen saiatzen gara.
- Enpresen lehiakortasunaren hobekuntzan parte hartzen duten eragileen arteko **lankidetz**a sustatzen dugu enpresei irtenbide erkideak eskaintzeko.
- Lehiakortasuna hobetzeko proiektuak definitu eta abian jartzen ditugu, banaka edo lankidetzan.
- **Industria-sinbiosia**: industrialdeen kudeaketa iraunkorra.

# Esparru estrategikoen sustapena Fabrikazio aurreratua



## Arlo estrategikoak

- Fabrikazio aurreratuarekin lotutako teknologiek eskaintzen dituzten aukeren inguruko sentsibilizazioa.
- Enpresen gaitasunen eta aukeren diagnostikoa.
- Berrikuntza sustatzeko edo teknologia zabaltzeko proiektuak antzeman eta abian jartzen ditugu, banaka edo lankidetzan.
- Balio erantsi handiko zerbitzuak.

# Esparru estrategikoen sustapena


## Energia



### Arlo estrategikoak

- Trantsizio energetikoa tokiko garapenaren ardatz gisa.
- Eskualdeko energia planak diseinatu eta martxan jarri.
- **Eraikuntza:** eraikinen isolamendua hobetzeko ekintzak, berokuntza-eta klimatizazio-sistemen berrikuntza, **energia berriztagarriaren sustapena eraikinen teilatuetan**, etab.
- **Mugikortasuna:** ibilgailu elektrikoak.
- Energia berriztagarriak toki-mailan sustatzea.
- Energiaren Eraginkortasunerako Programak: herritarrei, enpresei eta administrazioari zuzenduak. Kontsumo arduratsuaren alde sentsibilizatzeke asmoz.

# Sektore estrategikoen sustapena Biozientziak-Osasuna



## Arlo estrategikoak

- Zahartze aktiboaren sustapenarekin lotutako estrategiak.
- Medikuntza personalizatura bideratutako merkatu potentzialen azterketa.
- Enpresen arteko elkarlanetik abiatuta gara litezkeen produktu oso edota azpimultzoak identifikatzea.
- Osasunari aplikatutako teknologiak.

# Aukera-txokoak sustatzea

## Elikadura

### Arlo estrategikoak

- Tokiko produktu eta merkatuen garapena eta promozioa: landa-garapenerako agentzien eta agentzien sektoreko eragileen eskutik, honako lanak burutzen ditugu:
  - ✓ Tokiko elikadura-sistemaren diagnostikoa (ekoizpena, eraldaketa, merkaturatzea, kontsumoa...).
  - ✓ Ekoizpenerako dauden baliabideen inbentarioa.
  - ✓ Elikagaien eraldaketarekin lotutako proiektuak.
  - ✓ Merkaturatzea eta kontsumoa: eskaintza eta eskariaren analisia eta komunikabideen azterketa.
- Nekazaritzako elikagaien industriako ETEn lehiakortasuna hobekuntza:
  - ✓ Balio-katearen analisia.
  - ✓ Enpresen arteko lankidetzak-proiektuak antzeman eta abian jartzea eraginkortasuna, berrikuntza eta teknologiaren zabalkundea oinarri hartuta.



# Aukera-txokoak sustatzea

## Kultura eta Sormen Industriak



### Arlo estrategikoak

- Eskualde bakoitzeko kultura- eta sormen-industrien sektorea **ezagutzea**, horien potentzialak eta beharrak identifikatuz eta sektorean parte hartzen duten eragileak definituz:
  - ✓ Lurraldeko balio-katearen analisia.
  - ✓ Eragileak, enpresak eta erreferentzia-ereduak identifikatzea.
- **Sektorearen profesionalizazioa**: negozioen kudeaketarako gaitasunak eta eskumenak garatzea.
- **Lankidetzaren sareak** honako xedeetarako:
  - ✓ Enpresa txikien onurarako, enpresa traktoreen garapenari etekina ateratzea.
  - ✓ Enpresen eta ezagueraren alorreko eragileen eta bestelako erreferentziako eragileen arteko loturak ezartzea.
- Sektoreari balioa gehitzen dioten **espazio fisikoak** sortzea:
  - ✓ Coworking espazioak, enpresa-inkubagailuak.
  - ✓ Erakusketa-espazioak (showroom) eta produktu eta zerbitzuen salmentarako espazioak.
- Eskariaren estimulazioa.



# Aukera-hobiak sustatzea

## Habitat-hiritarra: Merkataritza



### Arlo estrategikoak

- Merkataritza-jardueren dinamizazioa:
  - ✓ Hutsik dauden lokalen dinamizazioa: hutsik dauden lokalak betetzeko jarduerak, lokal horiek jarduera bat garatzeko espazio interesgarri bilakatur.
  - ✓ Kale eta auzoen dinamizazioa.
- Saltokien lehiakortasuna hobetzea:
  - ✓ Energia-eraginkortasuna hobetzeko diagnostikoak burutzea eta hori hobetzeko planak abian jartzea.
  - ✓ Belaunaldi-txandakatzea.
  - ✓ Ahalduntzea.
  - ✓ Berrikuntzarako proiektuak garatzea, banaka edo lankidetzan.

# Aukera-txokoak sustatzea Ekosistemak



## Arlo estrategikoak

- Agenda 21ren kudeaketa eta garapena.
- Hondakinen balioa handitzea.
- Industria poligonoetan hondakinen kudeaketa.
- Eko-berrikuntza eta ekonomia zirkularraren ikuspegiaren sustapena.



# Memoria 2017

## Proiektuak



# Garapen

etorkizuna lantzen  
por y para el desarrollo

GARAPEN AGENTZIEN  
EUSKAL ELKARTEA  
ASOCIACION VASCA  
DE AGENCIAS DE DESARROLLO

Tel.: 94 424 32 23 · Fax: 94 424 80 02 · email: [garapen@garapen.net](mailto:garapen@garapen.net)  
Boroa Elkartegia · Boroa Enpresa Parkea, 19 - 2. solairua, 16 Bulegoa · 48340 Amorebieta-Etxano · Bizkaia

[www.garapen.net](http://www.garapen.net)



# Garapen sozial eta solidarioa

---

## ► **Gure Balioak saria (Debegesa)**

Debarrenan gizarte-balioak (eskualdeko garapen iraunkorra erdiesteko beharrezkoak) sustatzeko egindako lanarengatik nabarmendutako pertsonak edo erakundeak saritzen ditu.

## ► **Debarrena Berritzen (Debegesa)**

Hauxe lortzera bideratuta dago egitasmoa: eskualdeko gaitasunak hobetzera, egungo gizarte-erronkei erantzun egokiak (eta berarenak) eman diezazkion, eta gizarte-berrikuntzaren inguruan etengabeko dinamika sortzera.

## ► **Enkarterri Sustatzeko Plana (Enkarterri Berri Zerbitzuak)**

Eragile guztien erantzuna da etorkizunari epe ertain eta luzera begiratzeko beharraren aurrean. Eskualdeak industria-ehunari eustea eta "kalitatezko lanpostuak" sortzea du helburu.

## ► **Erretirorako prestatzeko saioak (Goieki)**

Ekimen honen xedea da, batetik, erretiroa hartzeko adina duten pertsonak bizitza sozialean modu aktiboan parte hartzen jarraitzea, eta, bestetik, lan-bizitzan bildutako ezagutzak eta eskarmentua partekatzea.

## ► **Plasma-Plaza Sortzaile Mugikorra (Oarsoaldea)**

Auzolanean oinarritutako eskualdeko ekimenak agerian jartzen dituen tresna.

## ► **Ongi etorri! (Tolosaldea Garatzen)**

Tolosaldea Garatzeneko Immigrazio Sailak migrazioarekin eta dibertsitatearekin lotutako gaien eskualdeko kudeaketa bultzatzen du, baita eragileen arteko koordinazioa ere.

## ► **Ahalduntze-eskola (Uggasa)**

Egitasmo honek andrazkoen antolaketa eta gizarte-mobilizazioa sustatu nahi ditu, haiek aldarrika dezaten berdintasuna benetan eta eraginkortasunez gauza dadila.



## ► **Prestakuntza-bonua (Urola Kostako Udal Elkartea)**

Berrikuntza-tresnei buruzko 205 prestakuntza-orduko programa osoa da, lan bila dauden pertsonen enpresa bati balioa ekartzen dioten gaitasunak eskuratzen laguntzeko. Etekin ateratzen dionak “Bonu” bat lortuko du, zeinaren bidez finantzaketa erdietsiko duen pertsona hori kontratatzen duen enpresak (Urola Kostako kontrataziorako laguntzak).

## ► **Innovation entrepreneurship lab (Lea Artibai)**

Goi-mailako ikasketak dituzten gazte langabeei eskaini zaie egitasmo hau, Europako Gizarte Funtsak finantzaturako Lehen Job Lab programaren baitan. Lea Artibai ikastetxea da proiektuaren buru, eta asmoa izan da aipatu gazteak zeharkako gaitasunetan eta berrikuntzaren profil teknikoari lotutako gaitasunetan trebatzea. Egitasmo honek 6 hileko praktikaldia eskaintzen du enpresetan, eta, horrez gain, ordaindua da.

## Bazterkeria arriskuan dauden taldeen enplegua

### ► **Txertatu Merkatuan**

2014-2020 epealdirako Gazte Enpleguko POPVren baitan, 16 eta 30 urtetik beherako prestakuntza urriko gazteentzat da, lanean eta beren burua prestatzen ari ez direnentzat, hain zuzen ere prestakuntza-prozesuetan parte har dezaten edo lan-zirkuituetan sar daitezen.

### ► **Kokatu (Oarsoaldea)**

Proiektu esperimental honen jomuga da gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden andrazkoak lan-merkatu arruntean sartzea. Hori lortzeko, aurretiko prestakuntza eskaintzen die, baita lanpostuan aritzeko laguntza ere, eta kontratatzeko laguntzak ere bideratzen ditu.

# Enplegua



## Mendekotasuna

### ► **Nagusi proiektua (Enkarterri Berri Zerbitzuak)**

Norberari egokitutako egitasmo osoa da, informatika espezializatuaren, gerontologiaren eta gastronomiaren esparru estrategikoetan langabeak bideratzeko, prestatzeko eta lan-merkatuan sartzeki antolatua.

### ► **Etxekolan (Oarsoaldea eta Tolosaldea Garatzen)**

Etxeko lanetan edo pertsonen zaintza-lanean jardun nahi duten pertsoneri begirako egitasmoa da, eta prestakuntza, profesionaltasun-ziurtagiria eta lan-poltsa eskaintzen ditu.

## Gobernantza

### ► **Gizarte-lana (Beterri-Buruntza Udalak)**

Eskualdeko Lan-arloaren eta Gizarte-zerbitzuen arteko egituraketa lortu nahi du egitasmo honek. Xedea da elkarlanean oinarritutako gobernamentu-eredu berria eratzea, zeina kudeaketa publikoaren arloan hauexek bultzatzeko gai izango den: gizarte-berrikuntza, lurralde-garapen komunitarioari begirako egitasmoak eta enpleguaren sorkuntza endogenoa.

### ► **Debabarrenako Enplegu Mahaia (Debegesa)**

2015. urtetik antolatzen da foro hau, langabezia-egoerari erantzuna eskaintzeko asmoz. Halaber, tartean dauden erakunde eta eragile guztien artean irtenbideak planteatu nahi ditu, eskualdeko ekonomia eta enplegu-sorkuntza bultzatu ahal izateko.

### ► **Urolan Prest (Iraurgi Berritzen)**

Prestakuntza- eta enplegu- eragile ororen arteko sareko lankidetzaproiektua da. [www.urolanprest.eus](http://www.urolanprest.eus) webgune berria sortzea izan da lehenengo emaitza.



## Tokiko talentuaren sustapena

### ► **Goiaz (Debagoieneko Mankomunitatea)**

Debagoienako Lanbide Heziketaren Azoka da, eta DBHko zein Batxilergoko ikasleen artean lanbide-heziketa aukera gisa sustatzea du oinarri, baita ikasketa horiei sona ematea ere.

### ► **Abian (Debegesa)**

Debarrenako Lanaren eta Lanbide Heziketaren Azoka da, eta bi helburu ditu: batetik, eskualdeko ekonomia nahiz enplegu-sorkuntza bultzatzea; bestetik, lanbide-heziketa sustatzea.

### ► **Gazte Robotika (Debegesa)**

Hezkuntza-proiektu honen helburua da zientzia, teknologia, artea eta matematikarekiko (STEAM gaitasunak) interesa piztea, 8 eta 16 urte bitarteko ume eta nerabeen artean.

### ► **TeknoGazte 4.0 (Meatzaldeako Behargintza)**

Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Batxilergoko 2. mailara bitarteko ikasleentzat eta haien familientzat da. Xedea da ikasleek aintzat hartzea, beren etorkizunerako aukeren artean, enplegagarritasun handiko prestakuntza teknologiko, zientifiko eta industrialak; horietan, gainera, emakume gutxi daude.

### ► **Gerolan Orientazioa (Iraurgi Berritzen)**

Ikasleen ikasketa-orientazioa sendotzea da asmo nagusia, eta, horretarako, eskualdeko errealitate sozialaren eta ekonomikoaren berri ematen zaie. Era berean, hainbat ekintza antolatzen dira eskualdeko zenbait eragileren egunerokotasuna ezagut dezaten.



## ► **Bilbao Gazteak Sortzen (Bilbao Ekintza)**

### » **Bizilabe**

Gai zientifiko eta teknologikoei buruzko ikerketa-zentroa da, 10 eta 19 urte bitarteko gazteentzat. Jomuga du gazteek zientziaren eta teknologiaren gaineko jakin-mina garatzea, baita ekintzailtza eta sormenarekiko interesa piztea ere.

### » **Demola**

Zenbait entitatek (enpresak, erakundeak, etab.) hartzen dute parte berrikuntza irekiko eredu honetan. Goi-mailako Hezkuntzako ikasleek osatutako diziplina anitzeko lantaldeei erronkak ezartzen zaizkie, eta lantaldeok erronkei erantzuteko egitasmo bat garatu behar dute, egiazko konponbideak jasota.

### » **Gazte Talent**

Pertsona bakoitzaren gaitasunen, eskarmentuaren, ezagutzen eta, oro har, "talentuaren" balioa azpimarratzea du helburu, dohain hori lan-merkatura ahalik eta ondoen egokitzeko.

## Gazte enplegua

### ► **Hazilan**

POPV FSE 2014-2020 programaren baitan, jarduera-ibilbide oso honen xedea da 20 eta 35 urte bitarteko gazte prestatuak lan-merkatuan egokiago sartzeko ekintzak ezartzea.

### ► **GAZTEDILAN programa (Meatzaldeako Behargintza)**

"GAZTEDILAN PRESTAKUNTZA" prestakuntza-egitasmoa gazteentzat abiatu da, eta ondoko konbinazioa eskaintzen die: gaikuntza eskuratzeko 220 orduko prestakuntza (prestakuntza teoriko-praktikoko moduluetan) eta beste 40 orduko modulu bat lanetik kanpoko praktikak egin ditzaten enpresetan.



## Emakumezkoen ekintzailetza

### ► **Networking-asteazkenak: emakumezko enpresariak eta ekintzaileak harremanetan jartzen (Vitoria-Gasteizko Udala)**

Lan-harremanen sarea zabaltzeko eta, aldi berean, ezagutzak nahiz esperientziak bereganatzeko eta partekatzeko prest dauden emakumeei begirako ekimena da.

### ► **Andrazko ekintzaileen topaketa (Lea Artibai)**

Helburuak dira beharrak, kezkak eta arrakastak partekatzea, eta sinergieiei etekina ateratzeko ingurunea sortzea. Foro hau urtean behin egin nahi da.

## Espiritu ekintzailearen sustapena

### ► **Sortzearen Abentura (Bilbao Ekintza)**

Ekintzailetza ikastetxeetan bultzatzeko programa.

### ► **Zientzia eta Teknología (Iraurgi Berritzen)**

Xedea da ikasleek zientzia eta teknologiarekiko zaletasuna garatzea, arlo horietan trebatzea, eta egitasmo zehatzen garapenean saiakuntzak egitea.

### ► **Izan ekintzaile (Iraurgi Berritzen)**

Proiektu honen bitartez, ekintzailetza-jardueraren gaineko sentsibilizazioa eragin nahi da ikasleengan, baita horri lotutako zenbait trebetasun sustatu ere.



## ► **“Wanted” ideia-txapelketa (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Gazteek zailtasunak izan ditzakete egitasmoak egia bilakatzeko (finantzaketarik, aholkularitza teknikorik edota orientabiderik ezagatik, adibidez). Hala, ideia-txapelketa honek gazteen proiektuak abiarazten lagundu nahi du.

## ► **Ekintzaileentzat gomendatutako liburuak (Iraurgi Berritzen)**

Ekintzaileentzako liburu interesgarriak biltzen dituen liburua argitaratu du Urola Erdiko ekintzailletza-mahaiak, zeina zenbait ikastetxek, Iraurgi Berritzenek, Urkomenek (landa-garapeneko elkarteak) eta Urolabek (ekintzaileen laborategia) osatzen duten.

## ► **Lea Artibaiko enpresa proiektu lehiaketa (Lea Artibai)**

Urtean behin egiten da, eta gizarte-ekonomiako enpresak sortzera bideratuta dago. Saria eskualdeko kooperatiben elkarteak finantzatzen du, zeinak gizarte-ekonomiako forma juridikoa izatea hautatzen duten enpresei laguntzen dien.

## ► **Elkarrekin Eraikitzen (Iraurgi Berritzen)**

Ekintzailletzarekin lotutako balioak eta gaitasunak sustatu nahi dira hezkuntza-prozesuaren baitan. Horretarako, gazteek aukera dute eskualdeko gizarte-eragile eta eragile ekonomikoen errealitatea xehetasunez ikertzeko eta ezagutzeko.



## Lankidetzeta - Berrikuntza

### ► **Mungia sortzailea (Mungialdeko Behargintza)**

Eskualdean enpresen eraketa bultzatzeko makina bat jarduera biltzen du egitasmo honek, eta, horretarako, sormena sustatzen du, aberastasuna sortzeko eta garapen profesionala ahalbidetzeko osagai gisa.

### ► **BIG Bilbao (Bilbao Ideien Gunea) (Bilbao Ekintza)**

Ekintzailletza-zentro honen helburu nagusia da hirian enpresa-proiektu bat abian jarri nahi duten pertsonen eurentzat ezarritako baliabide eta ekintza guztiak eskuratu ahal izatea.

### ► **Getxo Meeting (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Udalerriko ekintzaileen eta enpresen arteko topaketa. Hamabost egunean behin egiten da, parte-hartzaileek esperientziak partekatu eta elkarrengandik inspirazioa lor dezaten.

## Sektore estrategikoak

### ► **SOCEM HUM proiektua (Bilbao Ekintza)**

Silver Economyren gaineko aholkularitza espezializatua.

### ► **Getxoklab (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Getxoko esparru estrategikoen (Sormenaren eta Kulturaren Industriak, Kirolaren eta Ongizatearen Industriak, eta Kultur Turismoa eta Wellnesa) inguruan ekintzailletza bultzatzeko programa hezigarri eta praktikoa.



## Gizarte ekintzaitza

### ► **Koopfabrika (Beterri-Buruntza Udalak, Oarsoaldea, Debagoiena)**

Gizarte-ekintzaitza eta bestelako gizarte-ekonomia sustatzeko programa. Antzeko jakingurak dituzten pertsonak ezagutzeko eta prestakuntza jasotzeko aukera eskaintzen du, eta egitasmoak taldeka garatzeko baliabideak eskaintzen ditu.



## Trebakuntza

### ► **Enpresa-lidergorako oratoria (Bilbao Ekintza)**

Enpresa-komunikazio programa da, praktikoa eta berritzailea, komunikazioaren 5 ezaugarri nagusietan oinarritutako metodologia aurreratua duena.

### ► **Mindfull English (Bilbao Ekintza)**

Estres-egoerak kudeatzeko, gatazkak konpontzeko eta enpresan orekari eusteko ikastaroa da; urtean behin egiten da, ingelesez.

### ► **Lantegi aurreratuak (Bilbao Ekintza)**

Prestakuntza aurreratuko lantegi hauetan, ondokoak jorratzen dira: hitzik gabeko komunikazioa eta gezurra antzematea, marka bereizlea (branding) eraikitzeko metodologia, merkatuko informazioa jasotzea eta automatizatzea, eta negoziatzeko teknikak.

### ► **Gailu mugikorrek enpresan erabiltzeari buruzko lantegia (Uggasa)**

Gailu mugikorrek eskaintzen dituzten aukerak baliatzea du helburu, enpresaren eguneroko betebeharrak bizkortzeko eta eraginkortasuna areagotzeko.

### ► **Lehiberri Management School / Lehiberri Kudeaketa Eskola (Tolosaldea Garatzen)**

Eskualdeko industria-ehunerako gaurkotasuna duten edo interesgarriak diren gaiei buruzko prestakuntza osoko programa, moduluz edo prestakuntza-saio laburrez osatua.



► **Mikropreben - Mikroenpresetarako Laneko Arriskuen Prebentzio Plana (Urola Kostako Udal Elkarteak)**

Mikropreben programaren helburu orokorrak dira, batetik, eskualdeko mikroenpresak sentsibilizatzea mikroenpresara egokitutako prebentzio-plana defini eta ezar dezaten, eta, bestetik, eginkizun horretan mikroenpresei aholku ematea.

► **Adimen Lehiakorra (Uggasa)**

Programa honen helburua da gure eskualdeko enpresak adimen lehiakorreko sistema bat abiatzearen garrantziaz sentsibilizatzea eta kontzientziaztea, beren lehiakortasuna hobetzen lagundu ahal izateko.

► **Marketing Digitala (Urola Kostako Udal Elkarteak)**

200 orduko prestakuntza-planean datza egitasmo hau. Pertsonen ahalmen teknologikoak hobetzea du xede, eskualdeko enpresen beharrei erantzun ahal izateko.

► **Enpresa Euskaraz Handitzen (Urola Kostako Udal Elkarteak)**

Enpresetara, bizilagunengana eta bezeroengana ailegatu nahi du eskualdeko ekimen honek, zerbitzuak eta produktuak euskaraz eskaini ditzaten laguntzeko asmoz. Batik bat, 10 lagunetik beherako enpresak dira xede-taldeak (zerbitzu-sektorekoak, merkataritzakoak, industriakoak...).



## ► **Heldutasun-eredua (Beterri-Buruntza Udalak)**

Mondragon Unibertsitateko adituek gidatutako enpresaren hausnarketa estrategikorako prozesua da, zeinetan atal hauek aztertzen diren: estrategia, lehiakortasuna, fabrikazio bikaina, berrikuntza, balio-proposamena eta negozio-eredua, nazioartekotzea, kudeaketa aurreratua, digitalizazioa, iraunkortasuna, pertsonak eta lurraldea.

## Antolaketa eredu berriak

### ► **Elkar Erantzukidetasun Tresna II: Erakide (Beterri-Buruntza Udalak, Uggasa)**

Enpresetan gizarte-erantzukidetasuna neurtzeko tresna da. Jardunbidea oinarri, erantzukidetasuna doitzeko beharrak eta hobetzeko proposamenak jasotzen dira, eta, horrela, tresna bera gaitzen da.

### ► **Ureraldatuz II Proiektua (Iraurgi Berritzen)**

Urola Erdiko enpresen antolaketa- eta kudeaketa-ereduak eraldatu nahi ditu ekimen honek, bai pertsonen parte-hartzea bultzatuz, bai estrategian eta antolaketan lagunduz, bai jardueraren jarraipena eta transmisioa bermatzeko ekimenak abiatuz...

### ► **Enpresa-eskualdatzea (Garapen, Debegesa, Lea Artibai eta Oarsoaldea)**

Lanbideren proiektu pilotua da, baina Garapen da egitasmoaren buru, eta Debegesak, Lea Artibaik eta Oarsoaldeak ere parte hartzen dute. Enpresak eskualdatzea du helburu, eta, horretarako, aholkularitza- eta laguntza-metodologia berritzailearen garapena baliatzen du.

### ► **Garapen Batera (Urola Kostako Udal Elkarte, Debegesa, Uggasa eta Beterri-Buruntza Udalak)**

Enpresei begirako programa honetan, xedea da enpresako pertsona guztiek erakundearen estrategiarekin bat egitea. 2016ko abendutik 2017ko ekainera, 23 enpresarekin egin zen lan.



## Enpresen arteko lankidetzak

### ► **Bizkaiko Mendebaldeko enpresen arteko lankidetzak bertikalaren sustapena (Meatzaldeako Behargintza)**

Enpresen arteko lankidetzak bertikala sustatzeko proiektua (Mendebaldeko enpresa traktore edo erreferenteen eta enpresa txiki eta ertainen (ETE) arteko elkarlana. Helburua da negozio-aukera berriak bilatzea).

### ► **Industria-sektoreko eta horri loturiko zerbitzuetako gaitasun-mapa (Behargintza Basauri-Etxebarri)**

Maparen xedea da enpresa horien egoera, gaitasun teknikoak, merkataritza-harremanak eta beharrak hobeto ezagutzea, eta, ondoren, informazioa aztertutakoan, ekintza-proposamenak sustatzea.

### ► **Silverlab (Lea Artibai)**

Zilar-ekonomiaren esparruan negozio-aukerak antzematera bideratutako programa bat jarri da abian, Ermuko Udalarekin batera eta Ekonomia eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren laguntzaz. Lea Artibai eta Ermua inguruko enpresak sektoreko eragileekin harremanetan jar daitezkeen egin da lan, egiazko aukerak izan daitezkeen ideiak antzeman eta garatu ahal izateko.

### ► **Itun-Berdea Erkidegoa – Iraunkortasunaren aldeko enpresa eta erakundeak (Vitoria-Gasteizko Udala)**

Enpresak harremanetan jartzeko eta haien artean informazioa trukatzeko erkidegoa da, helburuak eraginkortasunez erdiesteko tresna izan dadin.



- ▶ **Ekonomia zirkularra industria-sektorean (Bermeoko Behargintza, Lea Artibai)**  
Bizkaia Oreakan programaren baitan (Bizkaiko Foru Aldundiak tokiko eragileekin elkarlanean sustatua), ekonomia zirkularrarekin lotutako jardunbide egokien mapa osatu da Durangaldean, Ermuan, Busturialdean eta Lea Artibain, enpresetan ekonomia zirkularrari buruzko diagnostikoak egin aurretik (enpresei arlo hori lantzea ahalbidetuko dieten egitasmoak antzemateko).
- ▶ **DES - Debabarreneko Enpresen Sarea (Debegesa)**  
Ekimen honek eskualdeko industria-enpresei lagundu nahi die, eta tamaina txikikoei, sektore helduko enpresei eta abarri ematen die lehentasuna.
- ▶ **Balio-kate industrialak (Egaz Txorierri)**  
Industrien ekoizpen-gaitasunak eta ahalmen teknologikoak aztertzen dira, eta balio-kate industrial bereko enpresen artean negozio-aukerak zein sinergiak antzematen dira.
- ▶ **Goierri Valley (Goieki)**  
Enpresa elkartuen lankidetzak egiazko eta aktiboa baliatuta, eskualdeko industria-erlaketak gidatu nahi du ekimen honek.
- ▶ **Industria-sinbiosia (Goieki, Oarsoaldea)**  
Industria-sinbiosiari lotutako negozio-aukerak antzemateak da egitasmo honen jomuga, eta, hori lortzeko, industria-hondakinen mapa bat eta lotura duten balio-kateen azterketa bat egingo dira.
- ▶ **Hornitu III Proiektua (Iraurgi Berritzen)**  
Ekimen honen xedea da Urola Erdiko enpresa-gunea (enpresa-lankidetzak sarea) garatzea eta zabaltzea, hala, enpresen arteko elkarlanaren sustapenean oinarriturik, beren behar komunitaria egokitutako egitasmoak eskualdean gauza ditzaten.



## ► **Urola Kostako mahai estrategikoa (Urola Kostako Udal Elkartea)**

Elkarlan publiko eta pribaturako formula berriak jorratu nahi dira, eskualdeko lehiakortasuna sustatzeko estrategiak antzeman ahal izateko.

## ► **Enpresa-dinamizaziorako estrategiak (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Laguntza-sorta honen xedea da udalerriko enpresek, enpresa-taldeek, elkarteek eta profesionalen federazioek administrazioarekin duten lankidetzaren sustatzeko jarduerak bultzatzea. Helburu hori zenbait esparrutan erdietsi nahi da: turismoa, merkataritza, sormen- eta kultura-industriak, osasuna eta ongizatea...

## ► **Epartaidetza Komunitatea (Urola Kostako Udal Elkartea)**

Buruzagien erkidegoa da, non parte-hartzaileek esperientziak, jakin-nahiak eta ideiak partekatzen dituzten. Gainera, hobekuntza-taldeek bitartez, partekatutakoa aplikatzeko konpromisoa ere hartzen dute.

## ► **Lea Artibaiko enpresen lehen azoka (Lea Artibai)**

Bezeroek eta hornitzaileek merkataritza-harremanak gara ditzaten egiten da topaketa hau. Bertan, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek beren gaitasunak erakuts diezazkiete eskualdeko enpresa traktoreei, horrela lankidetzak aukerak aztertu ahal izateko.

## Industrialdeak - Iurzorua

### ► **Banderak (Egaz Txorierri)**

Programa honek Txorierriko enpresa-guneen zerbitzuen eta azpiegituren kalitate-maila ziurtatzen du, ofizialki. Horretarako, turismoaren arloan erabiltzen den "bandera urdinaren" antzeko egiaztapena baliatzen du.

### ► **Amurrio EKOiztu (Amurrio Bidean)**

Elkarlan publiko eta pribatua oinarri, proiektuaren xedea da Amurrioko industria-guneetan kudeaketa-eredu bat ezartzea, udalerriko industria-erkidegoa egituratzeko eta erregularizatzeko.



## Kudeaketaren hobekuntza eta berrikuntza

### ► **Aiarako DEMOLA (Amurrio Bidean)**

Berrikuntza ireki eta baterako sorkuntzarako ekimena da, prestakuntza duten gazteak eta eskualdeko enpresen berrikuntza-egitasmoak harremanetan jartzeko. Egitasmoa abiatzeko, enpresen 3 proiektu aukeratu dira, zeinak erronka bat planteatu duten. Gazteek, berriz, Demola metodologia erabilia eta diziplina anitzeko lantaldeetan antolatuta, baliozko irtenbidea edo “Demoa” proposatu diete enpresei.

### ► **Durangaldeko Lehiakortasun-ardatza (Durangaldea)**

Eskualdeko enpresen zerbitzurako tresna izatea du helburu, beren lehiakortasuna hobetzera bideratutako jarduerak egin ditzaten, dela nork bere kasa, dela haien arteko lankidetzak-formulak ezarrita.

### ► **Enpresen garapen, aurrerapen eta ikerketa teknologikorako laguntza (Iraurgi Berritzen)**

Enpresen berrikuntza sustatzen du egitasmo honek, karrera-amaierako proiektuak eskualdeko enpresetan garatuz eta workshop zientifiko eta teknologikoak antolatuz.

### ► **Basque Titanium Alliance (Oarsoaldea)**

Aeronautika-sektorearen ahalmenetara hurbiltzea du helburu, beroko ijezketa-lantegi baten ezarpenerako negozio-plan batean oinarriturik.

### ► **TransferINN (Lea Artibai)**

Mondragon Unibertsitatearekin eta mugaz haraindiko bazkideekin elkarlanean abiatua, xedea da berrikuntza-ekosistema eremu mugakidean indartzea, ekintzaileek, mikroenpresek nahiz enpresa txiki eta ertainek (ETE) unibertsitateetan, teknologia-zentroetan eta abarretan eskuragarri dagoen ezagutza jaso dezaten. Eskualde Garapenerako Europako Funtsak finantzatzen du proiektua, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren (POCTEFA 2014-2020) bidez.



## ► **Bilbao Ideiak (Bilbao Ekintza)**

Lantegi honek negozio-ideiak antzemateko eta osatzeko tresnak eskaintzen ditu, dinamika berritzaileen bidez.

## ► **PRINCE - Enpresa txiki eta ertainen (ETE) gaitasunak sustatzeko programa**

Programa honetan parte hartu duten enpresek beren estrategiaren eta antolaketaren (edo ekoizpen-prozesuen) diagnostikoa egiteko aukera izan dute. Orobat, antzemandako hobekuntza-arloak abian jartzeko parada ere izan dute, EHUko eta TKNIKAKo adituen laguntzaz.

## IKT

## ► **Laborategi-hiria (Vitoria-Gasteizko Udala)**

Egitasmo teknologiko bat duten eta erakustaldiak inguru errealean egin nahi dituzten enpresen eskura jartzen du hiria programa honek.

## ► **Mungia ON hilabete teknologikoa (Mungialdeko Behargintza)**


Ekintzaileentzako eta eskualdeko enpresetarako prestakuntza-saio laburrak. Asmoa da teknologia berriek eskaintzen dituzten zenbait erabilera eta hautabide berri ezagutzea, beren negozioen kudeaketa hobetu ahal izateko.

## ► **Mapa Teknologikoa (Uggasa)**

Eskualdeko enpresen trebetasun teknologikoen mapa osatu da. 77 enpresak hartu dute parte proiektuan.

## ► **Mikroenpresaren sustapen digitala (Uggasa)**

Lantegi honek aholkularitza ematen du enpresak bere buruaren berri modu eraginkor eta seguruan eman dezan Interneten, asmoa izanik bezero gehiagorengana iristea eta haiek fidelizatzea.



## ► **Aiara Industri 4.0 (Amurrio Bidean)**

Industria-enpresei begirako prestakuntza-ibilbidea. Mondragon Unibertsitatearen laguntza du, eta 6 lan-saioz (teorikoak eta praktikoak) osatuta dago. Helburu nagusia da digitalizazioak enpresari dakartzkien ondorioak ahalik eta gehien ezagutzea.

## ► **Eraiki Programa (Behargintza Basauri-Etxebarri)**

Bi dira programa honen helburu nagusiak: 4.0 Industria ahalbidetzen duten teknologien alorrean enpresetarako aukerak antzematea eta lankidetzaproiektuak abian jartzea bultzatzea.

## ► **Barnelkar II (Beterri-Buruntza Udalak)**

Balio-proposamen berriak garatzera bideratutako lankidetzaproiektuak zehazten ditu egitasmo honek. 4.0 Industria-Lantegi Adituen esparruan, negozio-aukera berriak lortu nahi dira, aipatu 4.0 Industriaren arloko aukeren indarra antzemanda eta aztertuta, hala enpresen gaitasunen eta baliabideen ikuspegitik nola merkatuarenetik.

## ► **Bilbao As Fabrik (Bilbao Ekintza)**

Orientazio estrategikoko elkarlan-prozesua abiarazi da, Bilboko zerbitzu aurreratueta enpresen lehiakortasuna handitzeko asmoz. Xedea da bai ekintzailtza gaitasun eta aukera hobeak sortzea, bai industria-sektorearen eraldaketa digitalari lotutako negozio berriak sortzeko aukerei erantzuna ematea eta aurrea hartzea.



► **Energia Efizientzia Eraikin Publikoetan (Vitoria-Gasteizko Udala)**

Palacio de Congresos Europa, ejemplo pionero de construcción verde a lo largo del tiempo.

► **Eskualdeko energia berriztagarrien ahalmenaren ikerketa (Goieki)**

Ikerketaren bidez, eskualdeak energia berriztagarria sortzeko duen ahalmena zehaztu nahi da, eta, batez ere, energia minieolikoari, minihidraulikoari, baso-biomasari eta biogasari erreparatzen die.

► **Donostia Smart City Proiektuak (Fomento San Sebastián)**

Smart City strategiaren baitan daude REPLICATE, SMART KALEA edo STEEP egitasmoak, zeinak eraikin bioklimatikoaren eta energia-berriztagarriak ezartzearen aldeko apustua egiten duten. CLUSTER SMARTENERGY edo ENERTIC enpresa-gunea egitasmoak ere aipagarriak dira.

► **Eskualdeko energia-planak (Debegesa, Iraurgi Berritzen, Oarsoaldea, Tolosaldea Garatzen, Uggasa)**

Garapen-agentziek hartu dute beren gain, eskualde-mailan, energia-jardueraren sustapena eta koordinazioa.



► **Getxo kokrea Bienestar (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Profesionalen, enpresen eta ekintzaileen arteko topaketa-lantegiak dira, eta ongizatearen esparruan Getxon enpresa-ekosistema bat sortzeko eta indartzeko erronka dute.

► **Onbideratu (Uggasa)**

Industria berria eratu nahi da sektore-ortoprotesikoaren, errehabilitazio-sistemen eta laguntza teknikoen inguruan. Era berean, egitasmoaren jomuga da tokiko egitura dinamizatzea, enpresa-sare berriak sortzea, etab.

► **Onbizi proiektua (Uggasa)**

Onbizi proiektuaren I. fasean definituriko prestakuntza-programekin saiakuntzak egitea izan da egitasmoaren helburua, errehabilitazio robotiko eta errealitate birtual sistemak darabiltzaten ariketak eta ereduako tratamenduak baliaturik.

► **Roborehub Lehiabide (Uggasa)**

Norberaren produktua garatzea da xedea, enpresa parte-hartzaileek goraka ari diren merkatu berriei heldu ahal izateko, esate baterako, aplikazio klinikoetarako sistema robotikoenari.

► **RAR Garaia (Uggasa)**

Urola Garaian belaunaren errehabilitaziorako ekipamendu robotikoen (BELAUN sistema) industria garatzea da asmoa (enpresen arteko lankidetzaren bitartez). Uggasak egitasmoa dinamizatzen eta koordinatzen du.

## Tokiko produktuen eta merkatuen garapena eta sustapena

### ► **Basaldea (Vitoria-Gasteizko Udala)**

Nekazaritza ekologikoa bultzatu nahi da, hauexek oinarri: gazteen lanbide-heziketa, nekazaritza-enpresen hazitegi bat, banaketa- eta merkaturatze-bide bat, ekologikoaren gaineko sentsibilizazioa.

### ► **Lurbizi Programa (III. Fasea) (Bermeoko Udala eta Gernikaldeko Behargintza)**

Programa honen bidez, Busturialdeko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea dinamizatu nahi da; arreta berezia eskaintzen dio ekoizpen ekologikoari, eta landa-eremuan lanpostu berriak sortu nahi ditu.

### ► **Beterri Km 0 (Beterri Buruntza Udalak)**

Tartean dauden eskualdeko eragileen arteko lankidetzaren egitasmoa. Xedea da eskualdeko nekazaritza-ekoizpena eta merkaturatze-zirkuitu laburrak agerian jartzea. Horretarako, bi oinarri ditu: batetik, eskualdeko jantoki publikoetan ingurumenarekin lotutako baldintzak ezartzea; bestetik, "Beterri Km0" eranskailua banatzea eskualdeko produktua sustatzen duten saltokiei eta ostalaritza-sektoreri. <https://www.beterrikm0.eus/es/>

### ► **Mungia Azoka Herria (Mungialdeko Behargintza)**

Ekimen honek Mungia Azoka Herriaren baitan bultzatutako jarduerak biltzen ditu, azoka-panorama, tokiko kontsumoa eta elikagai-industria sustatzeko helburua dutenak.

### ► **Bertatik Bertara (Uggasa)**

Egitasmo eta marka honen jomuga da eskualdeko bertako produktua zaintzea eta sustatzea; horretarako, merkatura dadin bultzatu nahi du.

► **Salmenta-zirkuitu laburren eta toki-esparruko merkatuen berrikuntza, V produktu-gaman oinarrituta (Urduñederra)**

Proiektu hau abiatu da produktu ekologikoak eta tokikoak zirkuitu laburreko merkatura eramateko aukerak sortzeko.

## Nekazal elikagaien industriako ETEen lehiakortasunaren hobekuntza

► **GuztiONA Nekazaritza Elikagaien Klusterra (Donostiako Sustapena)**

Hauexek ditu helburu: tokiko produktua sustatzea, sektoreen arteko sinergiak (turismoa, merkataritza, gastronomia...) ezartzea, egitasmoak bultzatzea, eta enpresa-lehiakortasuna indartzea.

► **Jantur (Iraurgi Berritzen)**

Tokiko ekoizleek, turismo-zerbitzuen lehen mailako hornitzaileek (jantetxeak, nekazaritza-turismoak) eta azken kontsumitzaileek osatutako plataforma teknologikoa.

► **Smart Pack (Oarsoaldea)**

Elikagai-industriarako ontzi adimendun baten garapena da egitasmo honen lehendabiziko xedea, eta, ondoren, ontzi adimendun baten prototipo funtzionala egitea nekazaritzako elikagaien sektoreko zenbait enpresatarako.

► **Gure Market II (Oarsoaldea, Beterri-Buruntza Udalak, Debegesa, Tolosaldea Garatzen)**

Zerbitzu-multzo integratua egituratzeko lankidetzako proiektua. Zerbitzu horien xedea da nekazaritzako elikagaien balio-kateko enpresatarako balio-proiektuak eratzea.



## Identifikazioa

### ► **Urola Kosta eskualde sortzailea (Urola Kostako Udal Elkartea)**

Egitasmo honen bidez, eskualdeko kultura- eta sormen-enpresak sendotu nahi dira. Sektoreko enpresen balio-katearen azterketan oinarriturik, ekintza-plan bat ezarri da.

## Dinamizazioa

### ► **Material ConneXion Bilbao (Bilbao Ekintza)**

Inguruko sormen-ahalmena eta gaitasun zientifiko zein teknologikoa antzemateko eta ikusgai jartzeko bidea izan dadin eratua, indar hori merkatura hobeto iristeko.

### ► **Bilbao Auzo Factory (Bilbao-Ekintza)**

Proiektu honek sormenerako gune erakargarri berriak sortu nahi ditu Bilbon. Horretarako, zaharkitutako lekuak birgaitzen ditu, eta jarduketa hirirako sektore estrategikoetan ardatzen du.

### ► **The Games Factory Donostia (Donostiako Sustapena)**

Bideo-jokoen industria Donostian bultzatzeko plataforma. Hiriak industria digitala eta ikus-entzunezkoa indartzeko duen estrategiarekin lotuta dago.

### ► **Donostia Moda Klusterra (Donostiako Sustapena)**

Modaren sektoreko balio-kate osoa bildu nahian Donostiako Sustapenak sustatutako klusterra.

### ► **Barakaldo creativity (Inguralde)**

Merkataritza-dinamizazioa indartzeko egitasmo honek artisau-lana eta sormena dakartza hiriaren ezaugarri erakargarri eta bereizle gisa.

# Kultura eta Sormen Industriak



## ► **Getxo Moda (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Urtean behingo topaketa honetan, modarekin eta irudi pertsonalarekin harremana duten diseinatzaile berriak eta Getxoko merkataritza-ehuneko saltokiak biltzen dira. Getxo Enpresa merkatarien elkarteak eta Getxoko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarteak antolatzen dute, udalaren laguntzaz.

## Trebakuntza

## ► **LanLab Getxo (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

3DLAN elkarteak udalaren laguntzaz antolatutako gune honen xedea da udalerriko enpresek eta biztanleek 3D inprimaketa-teknologiak eskaintzen dituen aukerak ezagutzea eta nork bere irtenbideak garatzea.

## Lankidetzak

## ► **Buruntzaldeko enpresa-sarea (Beterri-Buruntza Udalak)**

Gizarte-berrikuntzaren paradigmatari lotutako ikuspegi komunaren ondorioz sortutako sare informala.

## ► **Enkarterri Fashion Box (Enkarterri)**

Bizkaiko hogeita hamar moda-markak moda ulertzeko bestelako modu bat sustatzeko bat egin dute, solidarioagoa, iraunkorragoa eta diseinu-prozesua berriz balioetsiko duena.

## ► **Futurable Wearables (Bilbao Ekintza)**

Wearables direlakoek eskaintzen dituzten aukeren gaineko espezializazio adimendunerako lankidetzak-proiektua.

## ► **Serifalaris (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Diseinuaren arloko profesionalentzat nahiz sormenzaleentzat sortutako topaketa, arloko profesionalek eurek antolatuta (Getxoko "Serifalaris" elkarteak antolatzen du, udalaren laguntzaz).



- ▶ **Habian!:** **artisau-lanbideen eta ogibide sortzaileen inkubagailua (Oarsoaldea)**  
Elkarlaneko ekintzailetza-proiektu honen helburua da talde-lana eta gizarte-ikuspegia filosofiatzat dituzten enpresen artean jarduera sortzaileak integratzea.
- ▶ **Arte grafikoaren eskualdeko lankidetzaren taldea (Urola Kostako Udal Elkartea)**  
Ekimen honen asmoa izan da eskualdeko arte grafikoaren sektoreko enpresen eta eragileen elkarlanerako gunea eratzea, esperientziak eta informazioa partekatuz elkarrekin lan egin dezaten eta sektorerako ekintza estrategikoak antzeman ditzaten.

# Habitat-hiritarra

---

## Hiri-Garapena

### ► **Innolab Bilbao (Auzofactory Rekalde) (Bilbao-Ekintza)**

4.0 Industriarekin loturiko teknologietan eta konponbideetan berezitutako ekimena. Enpresa-berrikuntza babestu nahi du, industriaren eta, oro har, enpresen erronka estrategiko nagusiei irtenbidea aurkitzeko.

### ► **Ondare Industrialaren Birgaitze Eraginkorra (Debegesa)**

Lehengo industria-erabilerako eraikinak eta lokalak balioestea da helburua, eta, hori erdiesteko, birgaikuntza-konponbide berriak baliatzen dira, horien bidez ia energiarik gabeko eraikinak lortzeko.

### ► **Hiri Garapen Iraunkor eta Integraturako Estrategia (DUSI, gaztelaniazko siglak) (Debegesa)**

Ondokoak proposatzen ditu estrategia honek: eskualdearen azterketa multidimentsionala nahiz metropoli-testuinguruarekin duen harremanarena, egungo egoeraren diagnostikoa, eragileen zein kompetentzien mapa bat, eta ekintza-plan bat.

### ► **ZenN proiektua (Debegesa)**

Zenbait auzotako (Europa mailan) energia-efizientzia sustatzen du Europako egitasmo honek.

### ► **Merkatu Plazaren gaineko ikerlana (Gernikaldeko Behargintza)**

Gernika-Lumoko Merkatu Plazaren egoerari buruzko ikerketa. Eskaintzaren eta eskariaren azterketa sakona egin da, eta gunearen susperraldi komertzialari begirako jarduketak proposatu dira.

## Merkataritza: merkataritza-jardueraren dinamizazioa

### ► **Alde Zaharraren birgaitzea (Bermeoko Behargintza)**

Ingurunearen garapen ekonomikoa bultzatzea da xedea, Alde Zaharreko merkataritza-lokal hutsak eta, oro har, udalerriko merkataritza zein ostalaritza berpizteko ekintza-planen bitartez.

### ► **Biziago (Bilbao Ekintza)**

Dekoratzailen Elkargoarekin batera, lokal hutsak ikusgai jartzeko eta modu erakargarrian aurkezteko lan egiten ari da, bi helburu lortzeko asmoz: lokal horiek berriro ireki ahal izatea, batetik, eta diseinatzaile zein dekoratzaileei beren lana eta sormena erakusteko aukera ematea, bestetik.

### ► **Getxo AktibaTu! (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Merkataritza-ardatzak dinamizatze programari hau herritarren, profesionalen, saltokien zein ostalaritzaren eta kultura- eta kirol-elkarteen lankidegoan oinarritzen da. Eragile horiek jarduerak antolatzen dituzte merkataritza-ardatzetan eta saltegiatan nahiz ostalaritza-lokaletan.

### ► **Getxo PASS (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**

Doako turismo-txartela da Getxo PASS, zeinak deskontu eta opariekin saritzen dituen udalerrira bisitatzen duten eta bertan erosketak egiten dituzten pertsonak. Getxora turismoa egitera gerturaten direnak herrian kontsumitzera animatzea da jomuga.

### ► **Urola Erdiko merkataritza Mahaia (Iraurgi Berritzen)**

Eskualdeko merkataritza txikiak bizirik irautea bermatu nahi du mahai honek, non Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako merkatarien elkarteek eta udalek hartzen duten parte.

# Habitat-hiritarra

---

## ► **Portu kalea (Inguralde)**

Portu kaleko merkataritza-ardatza dinamizatu nahi du egitasmo honek, bai hutsik dauden lokalak bai artisau-produktuen sortzaileen erakustokiak leheneratuta.

## ► **Leioa Bidean (Leioako Behargintza)**

Bertako saltokietan egindako erosketak etxera eramateko udal-zerbitzua.

## ► **Dendaberri (Uribe Kostako Behargintza)**

Merkatarien elkarteak sortzen eta sendotzen laguntzeko programa. Udalerrietan merkataritza-dinamizaziora bideratutako ekintzak garatzea da helburua.

## ► **Udetxea Proiektua (Gernikaldeko Behargintza)**

Udetxea Jauregiko ingurunearen mantentze- eta kontserbazio-lanak. Eraikina udalerrian gehien bisitatzen diren gunen batean kokatuta dago, eta kultura-ondare handia du.

## Merkataritza: saltokien lehiakortasunaren hobekuntza

## ► **Arteshop (Bilbao Ekintza)**

Saltegi bat, artelan bat. Euskal Herriko Arte Ederren Fakultatearekin eta Bilbao Arte Fundazioarekin elkarlanean jarri da abian ekimen hau, zeinetan ikasleei aukera eskaintzen zaien beren artelanak Bilboko saltokietan erakusteko.

## ► **Technoshop (Bilbao Ekintza)**

Deustuko Unibertsitateko ingeniari-taldea ikasleek 24 saltegiarekin batera egiten dute lan; lokal bakoitzean, egitasmo berritzaile eta teknologiko bat garatzen dute.

# Habitat-hiritarra

---

## ▶ **Alde Zaharrerako Laguntza Plana (Bilbao Ekintza)**

Bai alta emanda dauden saltokiei bai alta berriei begirako laguntza ekonomikoen plana.

## ▶ **Merkatari (Debagoieneko Mankomunitatea)**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ezarpena saltegietan sustatzeko, garatzeko eta laguntzeko ekimena.

## ▶ **Tgem (Laudio Udala Garapen Agentzia)**

Laudioko merkataritza- eta ostalaritza-sektorerara bideratutako kudeaketari buruzko tutorizazio-zerbitzua.

## ▶ **Energia-diagnostikoak (Lea Artibai)**

Saltokien emaitza-kontuak optimizatu nahian, energia-diagnostikoak egin dira; izan ere, helburua da lokalei hobekuntza-planak proposatzea, horrela lehiakorragoak izan daitezen.

## ▶ **Lankidetzaproiektuak zenbait erakunderekin (Meatzaldeko Behargintza)**

Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) elkarlanean: eskualdeko saltokien energia-kontsumoa murrizten saiatzeko egitasmoa eta Osakidetzarekin elkarlanean: urtean behingo 4 tailer, saltokiei prestakuntza emateko.

# Habitat-hiritarra

---

## Turismoa

- ▶ **Turismo iraunkorra - Biosphere Ziurtagiria (Vitoria-Gasteizko Udala)**  
2016. urteaz geroztik, Gasteizek Biosphere Responsible Tourism ziurtagiria du, zeinak [Helmuga Turistiko Iraunkorra](#) dela egiaztatzen duen.
- ▶ **Ezkutuko Altxorak Azaleratuz (Bermeoko Udala eta Gernikaldeko Behargintza)**  
Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren inguruko kultura-, natura- eta ondare-baliabideen balioa nabarmendu nahi du ekimen honek. Helburua da bertako interes-guneei testuinguru historikoa eta naturala ematea.
- ▶ **Ibili-Ibilian Urdaibaien (Bermeoko Udala y Gernikaldeko Behargintza)**  
Busturialdeko kultura-, paisaia- eta turismo-ondarearen balioa azalaraztea da egitasmo honen xedea.
- ▶ **Getxon ongi pasatzeko planak (Ekonomiaren Sustapena-Getxoko Udala)**  
Udalerriko turismo-eskaintza sustatzea eta zabaltzea da jomuga. Eskaintza hori 4 ardatz handitan antolatuta dago: Getxo Kostako Jarduerak, Getxo Monumentala-Kulturala, Getxo Aktiboa eta Getxo Gastronomikoa.
- ▶ **Ignaziotar lurraldea (Iraurgi Berritzen)**  
Ondare historiko, artistiko, kultural eta erlijiosoaren balioa azpimarratzeko proiektua, erlijio- eta kultura-turismoaren segmentura bideratua.
- ▶ **Urola Gustagarri (Iraurgi Berritzen)**  
Egitasmo honen asmo nagusia da bertako ekoizleek eta turismo-zerbitzuen hornitzaileek loturak sendotzea eta harreman hurbilagoa izatea, tokiko produktuaren eta hornitzaileen eskaintza turistikoaren balioa nabarmentzeko.

# Habitat-hiritarra

---

## ► **Hericoast (Lea Artibai)**

Interreg EUROPE programaren baitan garatutako proiektua. Helburu orokorra da kostaldeko kultura-ondarea kudeatzeko eskualde-mailako politikak hobetzea, itsas zein ibai eskualdeetan, horrela ustiapen- eta kontserbazio-jarduketan arteko oreka lortu ahal izateko.

## ► **Turismo-dinamizazio plana (Lea Artibai)**

Lea Artibaiko turismo-dinamizazio plana zehaztu da turismoa bultzatzeko eta berari lotutako balioa sortzeko asmoz. Hiru proiektu estrategiko lehenetsi dira, zerbitzuen garapenari eta sustapenari dagokienez: ZAPORE, LEA ARTIBAI OUTDOOR eta NORTASUNA. Gastronomiarekin lotuta dago lehenengoa, eta arreta berezia jartzen du itsas produktuetan. Bigarrena, berriz, aire zabaleko ekintzetarako gunea da. Hirugarrena, azkenik, itsas nahiz landa ondareari lotuta dago, baita euskarari ere.

## ► **Albaola, Itsas Kultur Faktoria (Oarsoaldea)**

Itsas artisau-teknologia berreskuratzeko eta balioesteko gune berritzailea. Ontzigintzak, Nazioarteko Ontzigintza Eskolak, Nabigazio Eskolak eta abarrek osatzen dute sormen-unibertso hau, zeinaren bidez Euskal Herriko itsas iragana ezagutarazi nahi den.

## ► **Itsas Kirolgunea (Urola Kostako Udal Elkarteak)**

Enpresek eta erakundeek osatutako lantalde honek jarduera berriak garatzeko lan-ildo zehatzak ezarri ditu. Eskualdeak eskaintzen dituen aukerak eta bitartekoak baliatu nahi dira itsasoarekin lotutako kirolen balioa nabarmentzen duten negozio-linea berriak sortzeko.



► **Blue Lab Lea-Artibai, Inspired by the Blue Economy (Lea Artibai)**

Xedea da bertako enpresa-ehundura eta ekonomia indartzea, diseinu sistemikoan oinarritutako tokiko garapen-ikuspegia abiapuntu, eta ekonomia urdinaren printzipioei jarraiki.

► **Deba ibaiko eta bere erriberako paisaiaren diagnostikoa eta ekintza-plana (Debegesa)**

Deba ibaiko paisaiaren ekintza-plana, Sasiola eta Astigarribiatik estuarioraino, Deba eta Mutrikuko udalerrietan.

► **Euskal Kostaldeko UNESCOren Mundu Geoparkea (Debegesa)**

Deba, Mutriku eta Zumaia udalerriek osatua, nazioarte-mailako garrantzia duen ondare geologikoa du. Garapen iraunkorreko estrategia ezarri da bertan, bertako natura- eta kultura-balioen sustapenean eta babesean oinarrituta.

► **#be circular be goierri (Goieki)**

Eskualdean ekonomia konpontzaile eta birsortzailerako aldaketa azkarrago gerta dadin sustatzeko ekimena.

► **Pasaiako Badiaren birsortze-prozesua (Oarsoaldea)**

Inguru honetan esku hartzeko epe motz eta ertainerako programa osoa planteatu da.



# Memoria 2017

## Emandako zerbitzuen jarduera-datuak



# Garapen

etorkizuna lantzen  
por y para el desarrollo

GARAPEN AGENTZIEN  
EUSKAL ELKARTEA  
ASOCIACION VASCA  
DE AGENCIAS DE DESARROLLO

Tel.: 94 424 32 23 · Fax: 94 424 80 02 · email: [garapen@garapen.net](mailto:garapen@garapen.net)  
Boroa Elkartegia · Boroa Enpresa Parkea, 19 - 2. solairua, 16 Bulegoa · 48340 Amorebieta-Etxano · Bizkaia

[www.garapen.net](http://www.garapen.net)



# 2017an lortutako helburu nagusiak

---



**11.865** langabetu orientatu dira lan-merkaturatzea ahalbidetzeko

**3.104** lanpostu kudeatu dira

**1.225** enpresa berri sortu dira

**1.591** enplegu sortu dira  
**22** Milioi €-ko inbertsioa

**3.575** enpresa artatu dira

**2.534** saltoki artatu dira

# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Enplegua

## Eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- Lan-bilaketa prozesuan zehar laguntza: informazioa, orientazio eta aholkularitza, bitartekaritza, lanerako prestakuntza.
- Bakarka eta taldeka lan eta pertsona gaitasunak eskuratzea.
- Enpresen aldetik konpromisoa: praktikak, prestakuntza lanpostuan, enpresetan proiektuak garatzea.

## 2017ko jarduera datuak:

65.399	arduratutako kontsultak
11.865	ibilbidean zehar elkarrizketatutako pertsonak
3.548	kudeatutako lan-eskaintzak
1.047	egindako prestakuntza-ekintzak
1.235	Tokiko Enplegu Planetako 1. motako (“Enpleguaren sustapena”) jardueretan kontratatutako pertsonak.
1.037	Tokiko Enplegu Planetako 3. motako (“Kontrataziorako laguntzak”) jardueretan kontratatutako pertsonak

# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Ekintzailtza



## Eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- Enpresak martxan jartzen laguntzen dugu: laguntza teknikoa, prestakuntza eskaintza zehatza.
- Azpiegiturak (Inkubagailuak/ "haztegiak" / enpresa faktoriak): coworking espazioak eta berrikuntza inguruneak.
- Hazkunde eta sendotzea: laguntza teknikoa, prestakuntza eskaintza, finantziario planak.
- Elkarlaneko ekintzailtza/Ekintzailtza soziala.


## 2017ko jarduera datuak:

4.443	sentsibilizazio ekintzetan parte hartutako pertsonak
1.225	sortutako enpresak
1.367	sustatzaileak.
78%	sortu eta 3 urteren buruan bizirik dirauten enpresak

## Sortu berri den enpresaren profila:

Enpresaburu indibiduala	25.794€ batezbesteko inbertsioa. Langile 1.
-------------------------	--

## Eragilearen profila:



35-45 urte  
Goi-mailako ikasketak  
Langabezian

# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Enpresa

## Eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- Enpresa gaitasunen diagnostikoa: Balio-katea ikuspuntua.
- Enpresaren lehiakortasuna hobetzeko laguntza prozesuan zehar.
- Enpresen arteko lankidetzak sustatu: sektore bereko enpresen artean, enpresa traktore-hornitzailea...



## 2017ko jarduera datuak:

3.575	artatuako enpresak.
2.374	lehiakortasuna hobetzearekin lotutako ekintzetan parte hartu duten enpresak.
1.242	kudeaketaren hobekuntzan parte hartu duten enpresak.
888	merrikuntza teknologikoan parte hartu duten enpresak.
244	nazioarteko ekintzetan parte hartu duten enpresak.

# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Biozientziak-Osasuna: Agroelikadura, Energia

## 2017ko jarduera datuak:

1.136	proiektuetan parte hartu duten enpresak:
343	- nekazaritzako elikagaien sektorea.
41	- energia sektorea.
752	- beste sektoreak.
2.011	enpresak: kompetentzia-analisia.
2.020	enpresak: balio-katearen analisia.



# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Kultura eta Sormen Industriak

## 2017ko jarduera datuak:

86 | proiektuetan parte hartu duten enpresak.



# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Habitat-hiritarra: Turismoa



## Eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- Enpresa lehiakortasunaren hobekuntza: Turismo enpresen lehiakortasunaren hobetzera bideraturiko aholkularitza eta zerbitzuak.
- Turismo sustapena eta dinamizazioa: Turismoaren hedapea eta produktuen merkaturatzea. Partaidetza azoketan, turismo produktuen sorkuntza, turismo helmugen sustapena, ekitaldien antolaketa eta abar.
- Sektoreko eragileen arteko **elkarlana eragiten dugu**.

## 2017ko jarduera datuak:

931.181	turismo bulegoetan artatu diren pertsonak.
15	agentzik kudeatutako turismo bulegoak.
17	agentzik kudeatutako informazio puntuak.
677	lehia hobetzearekin lotutako ekintzetan parte hartutako turismo enpresak.

# Zerbitzu nagusien jarduerari buruzko datuak / Habitat-hiritarra: Merkataritza



## Eskaintzen ditugun zerbitzuak:

- **Enpresa sustapena:** Merkataritzaren lehiakortasuna hobetzera bideraturiko zerbitzuak. Informazioa, prestakuntza, aholkularitza, plan estrategikoak burutzeko laguntza, laguntza ekonomikoak, eta abar.
- **Merkataritza dinamizazioa:** Merkataritzaren dinamizazioa bultzatzera bideraturiko ekintzak, esaterako, aukeren merkatua, erakusleihen lehiaketa, merkataritzaren gala, merkataritzako irudia, espo beherapenak, Gabonetako kanpainak.

## 2017ko jarduera datuak:

2.534	artatutako komertzioak.
1.343	lehia hobetzearekin lotutako ekintzetan parte hartutako komertzioak.
302	merkataritzaren dinamizatorako ekintzak.
4.711	merkataritzaren dinamizatorako ekintza hauetan parte hartu duten komertzioak.